

ACT UP, historia bat

Gauza on asko utzi dizkigu *120 battements par minute* filmak. Batzuk, begi-bistakoak: filmak gogoetarako bidea ireki digu, eta hiesaren aurkako borroka berriro hizpide izatea ere ondorio positibo horietako bat izan da. Beste-lako ondorioak ere izan ditu, ordea, filmaren arrakastak; esaterako, Act Up Paris elkartearen eta *Têtu* LGTB aldizkariaren sortzaile izandako Didier Lestraderen lehen liburua, *Act Up, une histoire* izenekoa berriro argitaratu izana Denoël argitaletxeak. Liburu hori izan du oinarri Robin Campillok bere filma prestatzeko.

Lehen edizioa atera zenetik 18 urte pasatu behar izan dute, baina poztekoa da hain eduki aberatsa duen testua ezagutarazteko ere balio izana *120BPM* filmak. Frantzian, bai, Frantzian ondo ezaguna da Didier Lestrade, baina handik kanpo bere testuek ez dute bide luzerik egin, ez baitira itzuli beste hizkuntzatara. Adibidez, *Act Up, une histoire* oraindik frantsesez soilik irakur daiteke, nahiz eta hiesaren aurkako borroka Europar egin duen ibilbidea ulertzeko ezinbesteko testua izan, gure ustez.

Azken batean, Act Up Paris elkarteak 1989 eta 2000 urte artean egin zuen lana gogoratzeko baino askoz gehiagorako balio du Lestradek liburuak. Hiesaren pandemiaren larritasuna ulertzeko, garaiko agintarien eta osasun-sistemaren ezintasuna eta hasierako arduragabekeria zirela eta milaka homosexual hiltzen ari zirenean ahal zutena egin asmoz elkartu zen lagun-talde txiki baten historia baino askoz gehiago da Act Up Paris.

New Yorkeko Act Up eredutzat hartuz, protesta-modu berriak eta urratzaileak erabili zituen Paris-ko elkarteak, eta, hain giza baliabide gutxi izanik eta diru-laguntzei uko eginez, asmatu zuen komunikazio-politika egoki batekin presio politikoa eraginkorra egiten eta gizarteari beren aldarria helarazten.


Zer zor dio LGTB kolektiboak Act Up elkar-teari?

Hiesaren aurkako mugimendu sozialak Estatu Batuetan egin zituen lehen urratsak, eta han-

dik iritsi ziren medikuntzaren arloko lehen aurrerapausoak ere. Baina bide hori ez zen izan orain pentsa dezakegun bezain erraza. Paris-ko elkarteak bereizgarri bat izan badu, hain zuzen ere, ikerketa medikoen jarraipen zorrotza egitea izan da. Eta horretarako prestakuntza-maila handia lortu zuten Act Upeko lehen ekintzaileek, betiere, autodi-dakta gisa. Ondo kostata lortu zuten GIBaren ikerketa koordinatzen duen Frantziako erakunde publikoan onartuak izatea, bertan seropositiboan ahotza lehen aldiz entzunarazteko. Lan eskerga egin zuen Act Upek ANRSen, baita Tratamendu eta Ikerketa Teraupeutikoa ardatz hartuta 5 elkarte eratutako batzordean ere (*TRT-5* izenekoan).

Gaur oso ezaguna ez bada ere, urte askotako lan horri asko zor dio LGTB kolektiboak, Lestradek berak liburuan dioen bezala; beharbada, baita milaka bizitza salbatu izana ere bai. Norbaitek pentsa lezake hori esatea askotxo dela, baina Lestradek ematen dituen datuek kontrakoa iradokitzen dute.

Kontuan izan behar da, hiesaren aurkako elkarteek Frantzian egin zuten aurrerapenak eragin zuzena izan zuela botiken banaketan. Halaxe gertatu zen 3TC (Lamivudina edo *Epivir*) izeneko botikarekin 90. hamarkadaren hasieran. Elkarteek bazekiten 3TCak oso emaitza onak ematen zituela AZTrekin konbinatuz gero, eta Estatu Batuetan «errukizko» programen bidez eskuratzen zutela gaixoek. Frantzia zen orduan seropositibo gehien zuen Europako herrialdea, eta laborategiei presio handia egin behar izan zieten botika berria gaixo gehiagori irits zekien. Presio horri esker, botikaren banaketa desberdina izan zen Frantzian eta inguruko herrialdeetan: 1995ean, adibidez, 3.240 pertsona ari ziren Frantzian botika berria hartzen, 630 Alemanian, 326 Herbehereetan, 235 Erresuma Batuan, 183 Espainian eta 32 Italian. Begi-bistakoa dirudi, beraz, gaixoen bizi-kalitatean ez ezik bizi-itxaropenean ere aktibismoak izan zuela eragina. Bada zerbait!



DIDIER LESTRADE

ACT UP
une histoire

1997an, Erresuma Batuko *Positive Naïon* aldizkariaren lehen orrialdean «The French Revolution» lerrobura irakur zitekeen: aldizkariak ohartarazten zuen bezala, elkarleen presioak beste herrialde batzuen aurretik jarri zuen Frantzia antiproteasen banaketan. Presio hori, batetik, industriarengan egin zuten elkarreek, botika berriak lehenago bana zitzaizuten, eta, bestetik, osasun-agintariengan, botika gehiago erosteko aurrekontuak baimendu zitzaizuten.

Funtsean, komeni da gogoraraztea LGTB komunitateak inoiz ahaztu behar ez lituzkeen bidegabekeriak pairatu behar izan zituztela orduko seropositiboek, besteak beste, gaixoen bizitzaren gainetik irabazi ekonomiko handiagora lortu nahi zuten laborategien jarrera, Lestradek salatzen duenez. Zenbait laborategik botika berriak (behar beste) banatzen ez hasteko erabilitako argudioak salatu zituen orduan Act Upek, horrekin botiken prezioa garestitzea eta are etekin ekonomiko handiago lortzea bilatzen zutela esanez. Horren guztiaren inguruko xehetasun ugari aurkituko ditu irakurleak liburu mardul honetan.

IMPACTS

DENOËL Foto. ACT UP, historia bat

Halere, kexu ageri da Didier Lestrade, jendeak ez

ACT UP, HISTORIA BAT

duelako ezagutzen nolako lorpenak izan dituen hiesaren aurkako aktibismoak medikuntzaren arloan, eta horren seinale da, dio, egun inork ez dituela ezagutzen aurrerapauso horiek bideratu zituzten aktibisten izenak.

Ekintzaileen eskuliburua

LGTB kolektiboaren historia-zati garrantzitsu baten lekukotza biltzen duen liburu bat baino askoz gehiago da Lestraderen testua: edozein eratako elkartetan dabilen ororentzat eskuliburu-moduko bat ere bada, ikasgai ugari biltzen dituen: elkarre berri bat sortzeak lehendik eratuta daudenengan sortzen duen errezelo txarra, iritzi publikoaren arreta erakartzeko lehia, borroka-eredu desberdinak (erreformista vs iraultzailea), aktibismoaren egonkortasun-eza (ekintzaile berriak iritsi bezain laster joatea, zaharrak lan-kargarekin erretzea...), profesionalizazioak eragiten dituen kontraesanak, finantzaketan independentziari eusteko erronkaren alde on eta txarrak...

Bai, gure historiak ikasteko ez ezik, gure aktibismoa hobeto kudeatzeko ere oso gomendagarria da mintzagai dugun liburua arretaz irakurtzea, gaur egungo aktibismoak ez baitu zertan etengabe berri-berritik abiatu behar, aurrekaririk ez balu bezala, bidean aurrera egin ahala sor daitzekoen arazoak lehendik beste batzuk konpondu behar izan ez balituzte bezala.

Act Up elkarteek, bai New Yorkekoak, bai Londres, Paris eta beste hainbat hiritan sortu zirenek ere, gorabehera ugari izan zituzten harik eta poliki-poliki indarra galtzen joan ziren arte, eta miresgarria da nola, nolako zehaztasunez eta zein xeheki, jaso duen Lestradek horien historia, batez ere Pariskoarena, noski, baina zeharka bada ere, baita gainerakoena.

Osasun-egoera larrian ekintzaile eraginkor eta ausart izateko gaitasuna izan zuten ehunka lagunen oroigarria da liburua, heriotzari aurrez aurre begiratu, eta auzolana familia bihurtu zutenena.

Belaunaldi baten lekuko

«Azken batean», dio Lestradek, «ez dizuegu hiesaren alde txarrena kontatu. Horretaz libratu zaituztegu». Eta horrek ematen digu neurria

benetan belaunaldi hark bizitu zuenaz jabetzeko. Liburuaren helburua ez da bidean geratu zirenen izenak gogoratzea, inondik inora, baina hiesaren aurkako borrokan parte hartu zuten hainbat eta hainbat ekintzailearen izenak agertzen dira orriotan, eta handik orri gutxira, nola edo noiz hil ziren ere bai. Agertu, eta desagertu, hil. Horrela etengabe.

Eta ez hori bakarrik. Bizirik jarraitu zutenek ere, Act Up utzi zuten, batzuk beste elkarre batzuetara joateko, eta beste askok aktibismoa utzi zutelako. Ekintzaileen lehen belaunaldia aspaldi desagertu zen. 1989ko belaunalditik bi lagun baino ez omen ziren geratzen Act Up Parisen Lestradek liburu hau idatzi zuenean: Hugues Fischer eta Didier Lestrade bera.

Act Up, lehen eta orain

«15 lagun, besterik ez: 15 lagun amorratu eta azkar nahikoak lirateke», dio egileak azken orrietan, horrek guztiak oraindik etorkizun luzea izango duela bermatzeko. «Eta 15 lagun ez dira ezer.»

Aktibista gutxiarekin (dozena batzuk, gehienez), zorpetuta... Campilloren filma zinemetara iritsi baino lehen nahiko ahulduta zegoen Act Up Paris. Eta lidergoari zegokionez ere, ez zirudien oso egoera onean: Lestradek berak gogor kritikatu zuen César sariak banatzeko ekitaldian Act Up Paris elkarteak lehendakariak izandako parte-hartzea. Elkarre inoiz amestuko ez zukeen aukera mediatiko hartan, lotsatuta egoteko itxurarekin, hau esatera mugatu zen Rémy Hamai lehendakaria: «Act Up Parisen lehendakaria naiz. Zera esan nahi dizuet: hiesa, migratzaileak, ez begiratu bestaldera».

Act Up Paris elkarteak loraldi berri bat izatea ere eragin du nolabait *20 battements par minute* filmak: 40-70 lagun berri iritsi omen ziren elkartera, eta horrek krisialdia arindu ordez, areagotu egin zuen. Hain zuzen ere, elkartearenganako interes berri horrek ekarri zuen Act Up bitan banatu zuen krisia. Aurreko zuzendaritza-taldeak dimisioa eman zuen, eta gogor kritikatu zuen iritsi berrien jarrera: «aurrez politizatutako gazteak» omen zirelakoan, «bestelako borroka batzuetan arituak, bereziki, arrazakeriaren aurka»

eta, beste borroka horiek lehenetsiz, hiesaren aurkako lana alde batera utzi omen dute. Behintzat, horixe izan zen dimisioa eman zuen lantaldeak kritikatu ziena.

Zertan da Didier Lestrade?

Lestradek eutsi egin dio ekintzaile izateari. Gaur egun komunikabideen arretatik urrun bizi den Lestraderi berari ahotso emateko ere balio izan du *120BPM* filmak. Eta, beti egiten asmatu duen bezala, horretan ere Lestradek aukera ondo baliatu du esku artean dituen borroken aldeko aldarria egiteko. Hala aitortzen du liburu honen berrargitalpenerako idatzi duen hitzaurre berrian: «Gay frantses ezagun bakarra naiz arrazakeria bere azken borrokatzat duena».

Bai, azken urteotan arrazismoaren aurkako borrokan buru-belarri ibili da, eta, horrekin batera, Palestinarren aurkako Israelen politika salatu du, eta bere gazte-garaian gainditutzat jo zuen gatazka hura gogorarazten du hitzaurrean ere. Adineko LGTB pertsonen prekaritatea ere sarri salatu du. «Nork babesten du gaur egun hirugarren adineko LGTB pertsonen alde lan egiten duen elkarte bakarra, Grey Pride izenekoa?», galdetzen zion irakurleari «*120BPM* filmaren ondoren, gorde zuentzat zuen laudorioak» izeneko iritzi-artikuluari.

Era berean, oso kritikoa izan da Didier Lestrade bere blogean, Tel Aviveko LGTB zinema-festibalean *120BPM* filma proiektatu zutenean Robin Campillok izandako jarrerarekin. Filmaren erantzun mediatikoarekin nekatuta zegoela aditzera eman omen zuen Campillo zuzendariak, eta proiektzio-eskubideak salduta zeudela esatera mugatu. Hori guztia *pinkwashing* egiteko aitzakia txar bat baino ez zela idatzi zuen Lestradek: «azken batean, filmaren beste ekoizlea, Hugues Charbonneau, albiste izan bazen Eliseo jauregira

ez zelako joan Macronen asilo- eta immigrazio-politikaren aurka protesta egiteagatik, Robin Campillok prentsa-ohar bat egin zezakeen filmaren aurkezpenerako», zioen bere blogean.

Bide batez, Lestradek oihartzun mediatiko berria baliatu du salatzeke zein baldintza eskasetan bizi den gaur egun, hainbat eta hainbat urtez aktibismoan ibili ondoren. Esan duenez, karitateari eta hurkoen laguntzari esker eusten dio eguneroko bizitzari, eta ohi bezala, argi eta garbi kontatu du nola joan behar izan duen gobernuz kanpoko erakundeentzako jantokietara, nola geratu den hortzik gabe dentista ordaindu ezinagatik, eta pairatzen dituen beste zenbait egoera prekario. Izan ere, langabezian dago Lestrade, berak eta lagun-pare batek elkarrekin sortu zuten Têtu aldizkari mitikoan lan egiteari utzi behar izan zionetik. Aldizkari hura izan zen, 1995ean sortu zenetik argitaratzeari utzi zioten arte, Frantziako LGBT aldizkari nagusia. Geroztik, batez ere sare sozialen bidez izan dezakete irakurleek Didier Lestraderen berri.

Beldurrik gabe eta ahoan bilorik gabe. Horrelaxe bizitu eta borrokatu da Didier Lestrade, gay, seropositibo, idazle, kazetari eta giza eskubideen aldeko ekintzaile gisa. Ondare oparoa utzi digu, eta asko zor diogu hari eta haren bidaide izan ziren hainbat eta hainbat laguni, asko ezezagunak eta LGTB mugimenduaren historiak ahaztuko dituenak. *Act Up, une histoire* liburua historia horren zati bat bizirik iraunarazteko ahalegina da, beste gauza askoren artean. Poztekoa da, beraz, film baten zeharkako ondorioek gure historiaren zati hura apur bat ezagunagoa izaten lagundu izana.

Joxean Zapirain

Erreferentziak:

FAVEREAU, E. 2018. Changement de têtes brutal à Act Up. In *Libération*, 2018-04-02. [lineal] [Kontsulta: 2018-07-02] <http://www.liberation.fr/france/2018/04/02/changement-de-tetes-brutal-a-act-up_1640518>

LESTRADE, D. 2017. Act Up, une histoire. 2. argitalpena. Trebaseleghe: Denoël.

LESTRADE, D. 2017. Après «120 BPM», épargnez-nous vos louanges. In *Libération*, 2017-05-30. [lineal] [Kontsulta: 2018-07-02] <http://www.liberation.fr/debats/2017/05/30/apres-120-bpm-epargnez-nous-vos-louanges_1573285>

LESTRADE, D. 2017. Rise and fall. [lineal] [Kontsulta: 2018-07-02] <<http://didierlestrade.blogspot.com/2017/10/rise-and-fall.html>>

LESTRADE, D. 2018. 120BPM au pays de l'apartheid [lineal]. [Kontsulta: 2018-07-02] <<http://didierlestrade.blogspot.com/2018/06/120bpm-au-pays-de-lapartheid.html>>